Enpresa Txikientzako
Praktika Errazak

1

Ekin Lanari

Praktiketako Plan Bat Antolatu eta Ezarri



GEHIAGO IRAKURRI NAHI?
www.learntowork.eu

learn to work

3
SARRERA

4
ZEINTZUK DIRA NIRE ENPRESAK PRAKTIKETAKO PLAN BAT EGITEKO ARRAZOIAK?

5
ARAZOEN KONPONBIDEA ETA ERAGOZPENAK

6
PRAKTIKETAKO PLAN BAT EZARTZEKO MODUA

8
PRAKTIKA ERAGINKORRAK

9
BEHARRIZAN BEREZIEN AUKERA AZTERTU

Lantokietako trebakuntza era bereziki eraginkorra da lanean oinarrituta gaitasunak hartzeko, eta erraztu egiten du hezkuntzatik zein trebakuntzatik lan-mundura trantsizioa egitea. Enplegatzaileek behar duten trebakuntza hornitzen dute eta, gainera, enpresen eta lantokien lehiakortasuna eta produktibitatea handitzen.

Kuaderno honek praktikak egiten dituzten enpresei irekitzen zaizkien aukerak laburbiltzen ditu, honelako trebakuntzari buruz ETEek dituzten eragozpen batzuk lantzen ditu, eta ikuspegi orokor bat eskaintzen du ikastetxeekin lankidetzan aritzeko askotariko moduei buruz praktiketako plan bat sartzeko.

ZEINTZUK DIRA NIRE ENPRESAK PRAKTIKETAKO PLAN BAT EGITEKO ARRAZOIAK?



Praktikak eskaintzen dituzten enpresek gizarte-ongizatean laguntzen dute, praktiketako ikasleei bizitzarako gaitasun garrantzitsuak emanez. Ondorioz, trebakuntza honek zure jasangarritasuna sendotzen du.

Praktikek beren gaitasun-oinarria handitzeko modua ematen diete enpresei eta, era horretan, produktu hobeak, prezio apalagoak eta irabazi handiagoak sortuko dira.

Enpresa horiek irudi hobea dute herritarren aurrean oro har eta, ondorioz, horrek marketin-aukerak zabaltzen ditu, baita enpresa-markari balioa erantsi ere.

Praktiketako ikasle batek ezagutza akademiko berriena ematen dio enpresari, baita uneko erronkei eta konpondu gabeko arazoei konponbide bat bilatzeko ikuspegi berri bat ere.

Praktikek aukera ematen diote enpresari publikoari begira haren produktuak, merkatua eta balio-proposamena eskaintzeko, gutxienez ikastetxean edo zentro zientifikoan, ahoz ahokoaren bitartez.

Praktikak trebakuntza errentagarri mota bat dira, praktiketako ikasleek ekarpen bat egiten baitiote lantokiari praktikek iraun bitartean.

Praktikek etorkizunean arloko goi-kalitateko enplegatuen funts bat sortzen laguntzeko aukera ematen die ETEei.

Praktikek "beste onura" batzuk dakartzate, adibidez, langileek gehiago irautea eta langileen konfiantza hobea.

ARAZOEN KONPONBIDEA ETA ERAGOZPENAK

"Praktikek gehiegi eskatzen dute"

Existitzen da ideia oker bat: praktikek gehiegi eskatzen dutela, hasieran denbora gehiegi eskatzen dutelako, eta praktiketako ikasleek ez dutela behar beste denbora irauten enpresan lan-inbertsioari eta ezagutza-transferentziari errentagarritasuna ateratzeko.

Aldiz, ondo pentsatutako praktiketako programa batek eta enpresa-plan batek onurak eman beharko lituzke inplikatutako alde guztientzat. Etorkizunean pertsonak hartu eta trebatzeko prozedurak eta arauak sortzeak denbora bat jo dezake, baina praktiketan egiten den inbertsioak talentu-emari bat segurtatzen die enpresei, epe luzeko lehiarako abantaila bat ematen die giza kapitalean, eta beren enplegatuen motibazioa hauspotzen du.

"ETEak txikiegiak dira praktikak eskaini ahal izateko"

Enpresaburuek askotan uste izaten dute espezializatuegiak daudela praktiketako programa osatu bat eskaini ahal izateko. Aldiz, praktiketako ikasleek beren espezialitateko enpresak aukeratuko dituzte, eta betekizun bakarra izango dute egunerokoan praktiketan orientazioa emateko prest dagoen tutore bat aldean izatea. Era horretan, pertsona bakarreko enpresak ere prestatuta daude mota horretako trebakuntza behar bezala eskaintzeko.

"Ez dugu bulegorik praktiketako ikasleak trebatzeko"

ETE askok etxetik lan egiten dute, edo kalean batetik bestera. Edozein trebakuntza egokitarako, lantoki erreal bateko praktika behar da, dela bezeroen instalazioetan, dela ibilgailu batean, dela etxean: praktiketako ikasleek tutorearen toki/testuinguru berean lan egiten duten bitartean, trebakuntzak bilatutako jomugara helduko dira.

1

Identifikatu zure enpresaren erronkak eta enpresaren etorkizuneko beharrezko gaitasunak.

Trebakuntza mota honen bidez, zure etorkizuneko lan-eskua trebatu eta gaitzen duzu. Identifikatu hurrengo urteetan hazkunde handiena izan dezaketen zure enpresako arloak, adibidez, merkatu berriak edo produktu motak, baita postu horiei aurre egiteko behar diren gaitasunak eta horiek zure praktiketako planean sartzea ere.

Jarri harremanetan ikastetxe hurbilenarekin eta jaso informazio gehiago!

2

Jarri harremanetan zure Lanbide Heziketa/Goi-mailako LH ikastetxearekin laguntza jasotzeko.

Lagundu egingo dizute behar izango dituzun baliabideak eta denbora-konpromisoak ulertzen, baita zure enpresan praktiketako ikasle bat hartzeko prestatzen ere. Gainera, ikaslearen interesak eta zure enpresaren beharrizanak bateratzen dituen zure trebakuntza-plana abiatzeko laguntza pixka bat ere eskain diezazukete, baita tramiteen kudeaketan eta trebakuntzaren prestaketan ere.

3

Identifikatu zure enpresako lanean praktiketako ikasle bat parte-hartzaile gisa sartzeko duzun gaitasuna. Esleitu baliabideak trebakuntza horretara (finantzetan, tutoretzan, espazioa eta lan-ekipamendua, etab.) eta garatu zure enpresaren aurreikuspena zein den zehazten duen enpresa-plan bat.

4

Identifikatu zure enpresan praktiketako planaren arduradun-lana egingo duen kudeatzaile bat; berak hartuko ditu bere gain kanpoko harremanak, praktiketako ikasle eta zure langileekiko harremanak, besteak beste. Berak izango du praktiketako plan osoaren ikuspegi orokorra.

www.learntowork.eu



Aztertu zure lankidetza-aukerak

Parte hartu zure tokiko/eskualdeko LH/GLH ikastetxearen edo erakunde bitartekariaren egun irekietan, lankidetza-aukerak aztertzeko. Bildu zaitez zeresana duten kontaktuko pertsonekin praktikak ezartzea pentsatzen ari diren beste enplegatzaile batzuekin, baita praktikak eskaintzen eskarmentu gehiago dutenekin ere, esperientziak elkartrukatzeko. Ezagutu praktiketako ikasle potentzialen taldea eta sustatu zure enpresa haien artean, gaiari buruzko tokiko edozein ekitalditan parte hartuz.

Eskuratu laguntza finantzarioa praktiketarako

Praktiken trukeko pagu edo ordainek, dirulaguntza edo pizgarriek, baita hezitzaile eta tutoreen horniketak ere sortutako kostuak askotariko aurrekontu publikoen (estatuko aurrekontutik aterata edo tasa berezi, zerga edo ekarpen boluntarioen bidez) eta praktikak eskaintzen dituen enpresaren artean banatu daitezke. Gaiari buruz gehiago jakiteko, mesedez galdetu erakunde hornitzaileari edo zure tokiko merkataritza-ganbera edo ordezkariari, aldeak handiak izan baitaitezke eskualde, herrialde eta enpresen artean.

Eskuratu erakunde bitartekarien laguntza, adibidez, merkataritza/artisautza-ganberak, arloko elkarteak, enplegu-bulegoak, hezkuntza-erakundeak/elkarteak, ekintzaileen sareak, etab. Horietako askok laguntza-planak eskaintzen dizkiete enplegatzaileei praktiketako plan bat prestatu eta abiatu, gauzatu eta balioztatzeko orduan.

Desgaitasunak ondorengo multzoetan banatu ohi dira:

- Gorputz-desgaitasunak: mugimendu-desgaitasunak, barruko gaitz kronikoak.
- Zentzumen-desgaitasunak: itsutasuna edo ikusmen-urritasuna, gorreria edo entzumen-urritasuna.
- Buruko desgaitasunak: gaitz psikiatrikoak, adimen- edo ikaste-desgaitasunak.

Praktiketako ikasle baten beharrizan bereziak zehaztea ezin bestekoa da ondorengoetarako:

- Trebakuntza egiteko dauden oztopoak definitzeko.
- Zure ETEa, une horretako zirkunstantzietan, baliozko postu bat eskaintzeko gai izango den erabakitzeko, zure lehengo esperientziaren eta ezagutzaren arabera.

Baina lasai! Beharrizan bereziak dituen ikasle batek praktikak eskatzen baditu, asistentzia jasoko duzu aukeratutako zereginean haren beharrizanei aurre egiteko.

Badira enplegatzaile guztiek ezagutu beharko lituzkeen arau orokor eta iradokizun batzuk beharrizan bereziak dituzten pertsonekin lan-harreman bat hasterakoan. Lehenik eta behin, desgaitasuna ez litzateke onartu behar ezaugarri nagusitzat. Aldiz, desgaitasuna duen ikasle bat besteak bezalaxe hartu eta hala hitz egin beharko litzaioke, betebehar eta eskubide berdinekin.

Xehetasun gehiago hemen: **https://learntowork.eu/special-needs.**

Pertsona baten ahalmenari bere onena ateratzeko, haren beharrizan bereziak ezagutu eta ulertu behar dira.

EGILEAK

Alicia Miklavcic, Anthony Camilleri, Dejan Blagojevic, Gilberto Santos, Henrika Varniene, Janez Damjan, Marko Grdosic, Martin Edmondson, Michael Bobik, Romana Nováčková, Sandra Feliciano

EDITOREAK

Sandra Feliciano, Sanja Brus

DISEINUA

Tara Drev

COPYRIGHT

(C) 2018, Saps

SAPS PARTZUERGOA

European Association of Institutions in Higher Education	EURASHE	BE
Knowledge Innovation Centre	KIC	MT
Association of Slovene Higher Vocational Colleges	SKUPNOST VSS	SI
Czech Association of Schools of Professional Higher Education	CASPHE	CZ
Association des Directeurs d'IUT	ADIUT	FR
Portuguese Council of Polytechnics	CCISP	PT
West of Scotland Colleges' Partnership	WoSCoP	UK
Conference of Academies for Applied Studies	KASSS	RS
Rector's Conference of Lithuanian University Colleges	LKDK	LT
Association of Austrian Universities of Applied Sciences	FHK	AS

SAIL HONETAKO BESTE KOADERNO BATZUK

- **2. Koadernoa:** Enpresak Parte Hartzearen Aldeko Arrazoi Guztiak: Praktiketako Programa Errentagarrien Diseinua
- **3. Koadernoa:** Zure Enpresako Aurkezpen Eraginkorrak: Praktiketako Ikasleak Enpresan Hasi
- **4. Koadernoa:** Praktiketako Ikasleentzako Laguntza Laneko Praktiketarako: Tutoretza Eraginkorra

GEHIAGO IRAKURRI NAHI?
www.learntowork.eu

learn to work

“Praktikek aukera ederra ematen diete ETEei konpainia handiek baino lehen hautagai onenak identifikatu eta kontratatzeko”.

Proiektu honek Europako Batzordearen babesa du. Argitalpen honek bere egileen ikuspegia bakarrik islatzen du, eta Batzordea ezin da hartu hemen bildutako informazioaz egiten den edozein erabileraren erantzuletzat. Idazlan honek Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin lizentzia du.

Co-funded by the Erasmus+ Programme of the European Union